



## Galegoa zanpatua

Txillardegia

**Orain dela urtebete, bihotza zinez hunkiturik, Rosalia de Castro-ren etxea bisitatu nuenean, nekez soma nezakeen galegoaren kontrako zanpaketa inguru hartantxe mamituko zela ondoko hilabeteetan. Baina kondairak ezagutu ohi dituen trufaketa eta eskarnio horietako bat gertaturik, Rosalia-ren oroitzapenak erakusten diren Padrón herritik lau kilometrotara, Dices-Rois herristan, Coruña eta Pontevedra probintzien arteko mugan; eta hortaz, Galiza galegodunaren bihotzean bertan, "galego" edo galizieraren etorkizuna neur daiteke gaur.**

Dices-Rois-ko maistra duzue gaur Galizia osoko "andereñorik" famatuena. Villaba-tarra sortzez (eta Lugo-tarra, beraz), Xosefa Baamonde irakaslea, "Pepa" adiskideen artean, beste zenbait herritan barena eskolan galegoz eman ondoren, eta hamabi urtez oztoporik izan gabe, 1980.eko Irailean Dices-Rois herriskan hasi zuen bere ikastaroa. Han zituen bere ikasleak, (Zortzi urtekoak EGBko 4.ekoak direnez,

denak, bi salbu, galegodunak; eta urteroko lanari ekin zion Pepak 34 neska-mutil horiekin.

Astebete pasa baino lehenago, ordea, Irailaren 20rako istilua hasia zen: Pepa Baamonde irakasleak "ez zuen legea errespetatzen". Zehazkiago mintzatuz, "Decreto de Bilingüismo" deritzonaz kanpo ari zen bere eskolan.

Egia esan, "Decreto" horren kon-

tra Pepak jokatzek ez nau batere harritzen; iaz hemen, Santiagon alegia, bera ezagutu nuenean, brotxak eta kola-ontziak eskuetan zeuzkalarik presentatu baitzidaten, "Decreto" horretxen kontra Galiziar abertzaleen "Bloque" delakoak muntatutako kanpañaren barruan, "Kartelada" betean ari zelarik.

Eskola ofizial askotan egiten da gaur dena galizieraz, eta ez Dices-Rois-koan bakarrik. Hain zuzen ere,

Pepa Baamonde-ren kontrako salaketa gertatu zenean, beste 400 irakaslek salatu zuten beren eskoletan ere gauza bera (eta bekatu bera: dena galegoz irakastea) egiten zutelaren prentsa-bidez aitortuz. Baina 400 irakasle horiei ez zitzaion ezer gertatu. Gobernuak etsai "bakar" bat erakutsi nahi du: Dices-Rois-ko andereño "fanatico" a.

Erasoa, noski, betikoengandik etorri zen; baina "gurasoen eskubideen defentsaz" jantzia.

Lehenengo salaketa Santiago Soretok egin zuen (IX-29); eta bigarrena, ia hitz berberetz, Manuel Dios jaunak (X-3). Lehenengoa, Cacerestik etorria, Dices-Rois-ko sekretaria da; PSOEkoa izana, omen. Bigarrena, aldiz, bertakoa, eta CC.OO.etatik, handiki-nahian, UCDr aldatur.

Eta Gobernuak arrazoi eman die bi aita horiei. Batetik, Pepak bekatu "larri" bat egin duelako ("una falta grave"): hiru ordu galegoz eman beharrean, ordu guztiak galegoz ematea. Bestetik, berriz, bekatu "oso larri" bat ("una falta muy grave"): "Lengua Española" rik bat ere ez ematea.

Pepa Baamondek, ordea, ironia apur bat ageri delarik, honela erantzun du bi salakuntza horien kontra.

Batetik, Galiza-ko eskola asko eta askotan, legeak agintzen dituen aste-ko hiru ordu horiek betetzen ez direnez gero, on izan daitekeela beste zenbaitetan alderantziz gertatzea.

Bitxi zaio, bestalde, astean hiru ordu baino gutxiago egiten badira, salaketa-rik ez izatea; gehiago egiten direlarik itzuletara, salaketa hau gertatu dela ikusita.

Bigarren puntuaz, berriz Programak "Lengua" azaltzea eskatzen du.

Hots, "Lengua" delako hori, Peparen ustez, Galiza osoan eta Dices-Rois-en bereziki, galegoa baizik ez da.

Arazoak oihartzun handia izan zuen lehenengo mementuaz geroztik: "autodenuncia" horien kanpaina, manifestazioak (fotoan Padron-goan agertzen da maistra famatua), prentsa-artikulu pilo bat; eta baita "comité fantasma" batzu,



**Pepa Baamonde, zigortutako andereñoa**

Kataluñan ere "2.300 intelectuales" delako horren antzerakoak: "Grupo Ultreya", "Asociación de Maestros Gallegos Independientes", eta abar. Sigla horien atzean, jakina, PSOE dago batez ere; eta berroieen hizkera, ezaguna dugu Euskal Herrian: "esos nuevos mesías obstinados", "el absurdo nacionalismo escolar", "Lucha por el universalismo", eta abar.

Galiza-ko "progreak" ere hotz agertzen dira arazo honetaz; eta 1975-ra arte galegoz mintzatzea aurrazazletzat bazeukaten ere, gaur hori "superatu" dute, eta gaztelaniaz mintzo dira barra-barra.

1981ko urtarrilaren 16-an, dena dela, agindua etorri zen Peparen kontra: "suspensa de funcões". Se-



guruak markatzen duena ordaintzen zaio, hori bai; egiten baitu 30.000 pezeta gutxiago hilean, "soldata erdia" gutxi gora behera.

Indar politikoak erabat zatitu dira arazo honetan. UCD eta PSOE, esan dugunez, kontra egertu dira; baita bertako "Pre-autonómico"aren kidea, "Xunta" alegia, UCD-ak erabiltzen duen instituzioa. PC-ak bere burua izkutatu nahi du (PSOE-k ere bai, jakina, Coruñan, eta besterik egin ezin izan duen lekuetan). Peparen alde, berriz, hauek agertu dira: UPG eta ANPG abertzaleak, beraien sindikatotzat agertzen den ING delakoa, ikasleen ERG mugimendua (egun hauetan Biltzar Nagusia debekatua), eta PSG alderdi sozialista, gaur joko abertzalean sartuta. Hitz batez: Galiza-ko ezker abertzale radilaka. Eta, honez gain, MCG eta LCR estatelistak (Euskadi-ko EMK eta LKI-ren kideak).

"Partido Galleguista" zaharra (gure arteko PNV-aren tankerakoa), eta "Ezquerda Galega" deritzona (gure arteko EE-ren tankerakoa) ez dira osoki busti; eta "actitudes irracionales" eta "visceralismo"aren arriskua ikusten dute.

Gaur, dena dela, Dices-Rois-ko eskola arazoa ahanzten hasia da; eta Otsailaren 23-az geroztik, bereziki, moteldu egin da galegoaren aldeko borroka. Jendeak "etsi ere egin duela" dio Pepak, "aspertu egin dela".

Baina gauzak horretan daude; eta bere bizia galegozko eskola indartzeari eman dion emakume gazte hau, "en punto muerto" gelditu da.

Baina kanpaña ez da bukatu.

"Queremos que también se enseñe en castellano" diote galizieraren etsaiek, biktima agertu nahiz. Eta, "gurasoen eskubideak" defenditu nahi dituzte, indar politikoek beren burua "A.P.A." siglaren atzean izkutatu (Asociación de Padres de Alumnos). "Xunta" delakoak "las posturas intransigentes" besterik ez omen du gaitzetsi nahi. Besterik ez, jakina.

Baina Galiza betidanik mehatxatzen duen diglosia osoa (Galegoak ez baitu balio sozialik) hortxe dago tinko.

Nola ez oroituko gure herrian gertatzen denaz?



Padron-go manifestazioan

**OHARRA.** — Honoko historio hau ASPG (Asociación Socio-Pedagógica Galega) elkarteak eraturako hitzaldi-debatetan atera da. Hain ere kataluindar, galiziar eta euskaldunen hizkuntzari dagokion egungo egoerari buruz izan dira ihardunaldiok, Galizian zehar, herri desberdinetan ospatu direlarik. Ihardunaldiok, be-

rrehun bat entzule biltzen izan dituzte bakoitzean eta denetan, azken ondorio bezala, hizkuntzokiko inestuzioen portaera salatu zen, hizkuntza nazionalen "ikararik gabeko heriotza" bilatuz doazela baieztatuz. Horrez gain, Galizia eta Euskadiren arteko burrukak koordinatu beharra azpimarratu zen ekitaldionan.